




ANTTON ETA HOSTOAK



LIBURUAREN FITXA

Ole Könecke. *Antton eta hostoak*. Alberdania, 2008

AURKEZPENA

Antton zintzo-zintzo ari da bere lorategian sakabanaturik zeuden hosto guztiak biltzen udazkeneko arratsalde batean. Eskuare bat darama eskuen artean eta pazientzia handiz lortzen du hosto guztiak biltzea hosto-meta batean. Guztiak? Ez, haize bolada batek altza du hosto bat eta jira eta bira eramaten du airean. Hostoak ibilaldi luze bati ematen dio hasiera, Antton atzetik duela, espazio desberdinak zeharkatuko ditu. Horietan dauden Anttonen lagunak elkartuko dira soka luze bat osatzen duten arte. Metatzen den ipuin honetan, lagun taldeak lortuko al du hosto metaosatzea?

KONTAKETA

- Kontaketan, azpimarratu hostoaren ibilbidea; irakurketaren norabideari jarraituko dio hostoak liburuaren lehenengo zatian. Halako batean, buelta emango du hostoak eta kontrako bideari helduko dio, abiapuntura iritsi arte.
- Atzamarraz jarraituko diogu hosto bihurriari. Begiek bilatu beharko dute hostoen ibilbidea.
- Testua lagungarri suertatzen da ipuin honetan baina ez du egoera osoa azaltzen, marrazkiek eskaintzen digute osagarri gehienak.
-
- Hizkuntzaz osatuko al dugu lagun katea, bukaeran?

PROPOSAMENAK LUZATZEN

- Inoiz bukatzen ez diren lanak agertzen dira ipuin honetan. Hasi eta bukaerarik ez duten lanak. Haurren hainbat jolasetan islatzen da sentsazio hau, adibidez, hondarra edota buztinekin egiten dituzten jolas amaigabeak.
- Lan delikatu eta zail bat azaltzen da liburu honetan. Lagun artean egin behar den lan zail bat.
- Bakarka egin ezin ditugunak elkartasunean gainditzen ditugu.

PROPOSAMENAK ZEHAZTEN

- Bakoitzak paperezko hosto batzuk egingo ditu; ebaki eta margotu.
- Horren ondoren, denen artean osatuko dute irudi bat hosto horiek bertan kokatzen.
- Ideia nagusia da denen artean lan zail bat osatzea. Nola egingo duten erabakitzea, norberaren ardura zein den, txandak nola osatu...